

Arabara itzuli da Lazarraga

Lazarragaren Testua.

Ni banax Arabakoa, idatzi zuen Joan Perez Lazarragak XVI. mendean. Eta, azkenean, nora ezean ibili ostean, haren eskuizkribua etxera itzuli da, Arabara, alegia. Hala gertatu da Gipuzkoako Aldundiak eskuizkribua Arabako Aldundiari utzita. Jadanik Gasteizko Bibat museoan dago Lazarragaren eskuizkribua, beirazko kutxa batean ondo gordeta. Hara joaten den edonork idazkia oso-osorik irakur dezake. Izan ere, eskuizkribu originalaz gain, haren faksimilea jarri dute.

Borja Aginagalde, Eusko Jaurlaritzako Dokumentu Ondarearen arduradunak Madrilgo liburutegi batean aurkitu zuen Lazarragaren eskuizkribua. Gipuzkoako Foru Aldundiak 2004an erosi zuen, eta atzo arte haien eskuetan egon da. Atzo, ordea, arabarrei eman zieten eskuizkribua. Izan ere, Gasteizko Bibat museoan egindako ekitaldian Xabier Agirre Arabako Diputatu Nagusiak eta Gipuzkoakoak, Markel Olanok, lagapen agiria sinatu zuten. Han izan ziren, besteak beste, Arabako eta Gipuzkoako diputazioko kideak, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako sailburuorde Ramon Etxezarreta eta Arabako ezker abertzaleko hautetsiak.

Lazarragaren eskuizkribua uzteagatik Agirrek Gipuzkoako Aldundiaren esku zabaltasuna eskertu zuen. Hitzarmenari esker arabarrok euskal filologia, historia eta kulturaren harribitxia izango dugu. Are gehiago, Lazarragaren testuaren balioa goraipatu zuen. Euskal literaturaren historiaren inguruan geneuzkan kontzeptuak aldatu ditu. Idazkiaren balioa argi uzteko, testua aurkitu eta aztertu duen Borja Aginagalderen hitzak erabili zituen Agirrek: Erantzunak baino, galderak ekarri ditu Lazarragak. Hori dela eta, euskal literaturaren ikerketa arloa zabaldu dela eta pozik agertu zen Agirre.

Olanok, berriz, Arabako senideei eskuizkribu historikoa uzteaz harro azaldu zen. Behin diputatuen hitzaldiak amaitu zirenean, goizetik ikurrina batez estalita egon zen beirazko kutxa desestali eta Lazarragaren eskuizkribua agerian utzi zuten Olanok eta Agirrek.

Harribitxia

XVI. mendeko idazkiaren garrantzia izan zuten hizpide bi diputatuek. Ez da gutxiagorako, eskuizkribu honek oso ezaugarri bereziak baititu. Alde batetik, arabar noble batek Arabako euskalkian idatzia delako. Bi alor hauek nabarmendu zituen Agirrek. Arabar peto-petoa zen Lazarraga. Larreako dorretxean ehun urte baino gehiagoz bizi izan zen haren familia. Gainera, eskuizkribuak erakutsi du Arabako euskalkia bizkaitar eta gipuzkoarraren arteko zubia dela. Olanok azaldu zuenez, idazkiak, Araban euskarak zuen

indarra eta bertakoek zuten herri kontzientzia agerian uzten du. Bestalde, Lazarragaren hitzetan kontakizun erlijiosoetatik haratago, antzinako euskal filologian urriak izan diren maitasun poema eta landa narrazio profanoak ageri dira. Horrek garrantzi berezia du, beti pentsatu izan baita Erdi Aroko euskaldunek erlijio kontuez soilik idazten zutela. Gainera, eskuizkribuko landa eta artzain istorioek frogatzen dute XVI. mendean European indarrean zegoen Pizkundeko literatura euskarak ere jaso zuela. Mitologia istorio luzea ere idatzi zuen Lazarragak, baita Agurain 1564an erre zeneko kontakizuna ere. Gainera, Lazarragak bai prosa bai bertsoa erabili zituen.

Hori guztia gutxi balitz bezala, eskuizkribuak badu altxor oso berezi bat. Etengabe bere izenaren eta izanaren bila dabilen herriarentzako altxorra izatea, alegia. Izan ere, Lazarragaren eskuizkribuan, lehen aldiz, eusquel herria, hots, Euskal Herria ageri da. Olanok esan duenez, eusquel erri agertzeak, Euskal Herriaren errealitate soziala eta kulturala ukatzen dutenei gauzak argi uzten dizkie.

Eskuizkribua 1564 eta 1567 urteen artean idatzi zuela uste dute adituek. 2004an Madrilén berreskuratu eta gaur Bibat museoan dagoen eskuizkribuak, 52 orri ditu (102 orrialde). Bata besteari jositako zenbait koaderno osatuta dago, eta, indartzeko, pergaminozko azalak ditu erantsirik.

Idatzitako orrialdeak ulergarriak badira ere, originalak zituen orri batzuk falta dira, eta beste batzuk apurtuta daude. Hori dela eta, ezin izan da orri batzuen transkripzio osoa egin. Gainera, bere garaian eskuizkribu hau argitaratzeko asmorik izan ez zenez, euskarazko testuen ondoan gaztelaniazko ohar batzuk, zenbakiak, monogramak eta sinadurak ageri dira.

Lazarragaren testua

Lazarragaren eskuizkribu zati batzuk bereziki garrantzitsutzat jo dituzte. Bata, bere arabartasuna eta euskalkia aldarrikatzen duena. Hauek dira hitz originalen transkripzioak eta erreferentziak :

' Zu bazarede serbieten jakiten naxan nungoa, bardin badozu adietan erri artako berbaetan, ni banax Arabakoa ' (f.47, 1201r)

Euskal Herria berba idatzi zuen lehenengoa izan zen Lazarraga. Hiru aldiz aipatzen du eskuizkribuan ' eusquel erria ' forma erabiliz:

' Oi, Gaztelako errege jauna, erreginagaz ikasu, zeure kortean dama ederrik nola bapere ez dozun, zergaiti Euskel Errian dira eder guztiok dotadu ' (f.18v, 1169v).

Iñaki Larrañaga.